

MARDARAZ, AINTZINDARIA

Izena: Kristina Mardaras Zedrun. Nongoa: lurretarra. Jaioteguna: 1948.eko apirilak 13
Lanbidez: Irakaslea eta etxeoandrea. Zortzi-bederatzi urterekin hasi zen katekesian bertso zaharrak ikasten. 39 urterekin ekin zion plazan kantatzeari. Bera izan da ondorengoei bidea ireki diena.

Testua: Izaskun ELLAKURIAGA
Argazkiak: I. GALLEGO

Noiz hasi zinen bertsoan? Bertsoak ikasten 30 bat urterekin hasi nintzen, 90ko hamarkada hasieran. Koadrilan hasi ginen. Durangoko Ikastolan Durangaldeko jendea batzen hasi ginen eta irakasle moduan, pixkat gidari, Kapela defuntua, Lopategi, Areitio bera ere izaten genituen.

***Eta noiz izan zen bertsoan entzun zenuen lehen aldia?**

Zortzi edo bederatzi urte izango nituen, eskolan. Katekesian bertso zaharrak buruz ikasten genituen, Arresebeitarenak, Enbeitarenak ... Oso zorte handia izan dut nik. Katekesian niregan eragin handia izan zuten bi abaderekin topo egin bainuen. Bai kultur ezagupenen arloan zein nire bizitzaren pertsonalean eragin handia izan zuten. Pentsa, txikitatik itzulpenak egiten hasi nintzen. Horrekin batera, Euskaltzaindiak Bizkaiko aurrezki kutxarekin batera antolatzen zuen txapelketa batzutan parte hartzen ere hasi nintzen. Eta bertan bertso bat ere bota egin behar izaten zen. Guk buruz ikasita eramaten genituen.

***Beraz txapelketa horretan plaza baten kantatu zenuen lehen aldia izan zen.**

Bueno, ez, plaza baten ez, baina jendearen aurrean bai ze kantatu egin behar izaten genuen.

***Eta plazan kantatzea ezagutzen duguna noiz?**



Oromiñoko (lurreta) jaitan San Markon izan zela uste dut. Nahiko arin izan zen, 83an izango zen. Eta urte horretan bertan Bilbo-ko Plaza

barrian Bizkaiko beste bertso eskola batzuekin batera kantatu genuen.

***Bertso eskolan zu zinen emakumezko bakarra?**

Ez, bertso eskolan bazeuden beste batzuk ere. Baina plazara ateratzerako orduan, neu bakarrik joaten nintzen.

***Gaur egun plazatan kantatzen duzu?**

Urtean lau aldiz kantatzea tokatzen zait. Bertso eskoladoekin auzoren batetara saioa egiten joaten garenean laguntza moduan parte hartzen dugu heurrek nahi izan ezker. Baiza ofizioka eta plaza batetan Hondarribin duela 2 urte kantatu nuen azken aldiz. Plazatarako ez nintzela erabaki nuen.

***Zergaitik?**

Alde batetik, nire bertso kalidadea ez da sekula ona izan eta horretaz jabetzen nintzen. Gainera, nire asmoa beste batzuei bideak zabaltzea zen. Horrez gain, ez naiz sekula horretan buru-belarri saiatu, bertsoak egin behar izateak ez bainau guztiz betetzen. Sarritan jendea barrua erakustea eskatzen duelako eta bestalde personalitate dobleak lantzen direlako, eta hori ez da nire gustokoa. Bertsolaritzan sartu banaiz, nire ustez, emakumearentzat galerazita egon den terrenoa izan delako izan da. Eta jendea demonstratu nahi izan diot bertsolaritza ez dela sexu kontua. Horretan nabilela atzetik



beste batzuk etorri dira, beraz nire funtzioa beteta dagoela uste dut.

***Bertsolaritzak emakumearentzako guztiz zabaldu ditu ateak?**

Ez, oraindik ez. Hori guk egin beharko dugun gauza izango da, ez dut uste gauzak berez datozenik. Astiro-astiro bidea egiteko gai garela erakutsiko dugu, bertsolaritza desarroiletako. Momentuan herriak eginda dituen eskemetan eta gizonezkoen eskemetan mugitzen gara. Eta ugarituz gero, beharbada, gure eskema propioa egin genezake. Emakumearentzako egoera normalizatuko dela itxaroten dut, bertsolaritza gure egoerara egokituko dugula, hain zuzen.

***Plazatan kantatzen zenuen emakume bakarra izanik, zer oztopo izan dituzu?**

Alde batetik oztopoak, baina beste alde batetik pribilegioak ere izan ditut. Ni bertso-

laritzara jaio banaiz, bertso eskolekin batera izan da. Eta bertso eskolen artean topaketak, afariak, antolatzen genituen. Beraz, hor babestuta sentitzen nintzen. Gero, andra bakarra izateagatik bertso eskasak gehiago onartzen zizkidaten, emakunekoa nintzelako eta nobedade bat nitzelako. Oztopo nagusia gizonezkoen gizarte batetan kantatzea zen. Nik zalantza handiak izaten nituen, esaten nuenak haien kulturaren eragina izango zuelako. Gero, gizonezkoen ondoan kantatzerakoan, gizonek nirekin muga batzuk izaten zituzten. Lehen emakumeari buruz freskotasun batzuk esaten bazituzten, nik kantatzen nuenean, mugatu egiten zuten esan beharrekoa. Oztopoa familia bat izatea eta bertsotan egiteko familia utzi beharra ere izaten zen.

***Sarritan esan duzu emakume bertsolari**

bakarra zeu izan zarela, gaur egun daude-nak ez direla emakumeak.

Bai, nahiz eta hemendik aurrera beren emetasunarekin konziente izaten hasi, orain arte neskatila batzuk izan dira eta taldean babestuta sentitu dira. Baina emakumeen arazoak familia konpromisoak sortzen has-ten direnean etortzen dira. Horregaitik esa-ten dut neu izan naizela emakume bertsolari bakarra.

***Ezaugarri bereziak izan behar ditu ema-kume batek bertsolari izateko?**



Ez derrigorrez. Teknikoki neskak zein mutilak ikasi dezakeen gauza da bertsolari-tza, gero hizkuntza oso ondo menperatu behar du. Bertsolariak gatza ere eskatzen du batzutan, memoria ona ere behar da. Baina nik ez dut uste bertsotan egiteko ezaugarri berezirik behar denik, beste gauza bat da elitekoa izatea edo ez.

***Nola ikusten duzu emakumearen etorki-zuna bertsolaritzan? Seme-alabak izan eta plazarik-plaza bertsotan arituko diren bert-solariak izango al dira?**

Ni baiezkotan nago. Hala ere, horrek sakrifizio handia eskatzen du. Eta ez gaiteze-la horretara heldu emakumezkoa izateagai-tik. Komentzimendu osoz jarraitu behar du, aurrera egiten duenak. Nik uste du baietz, ze ugaritasunean posibilitate gehiago dago.

***Zer iritzi duzu martxoaren 8a inguruan egiten diren emakume hutsezko saioak?**

Nire ustez aukera guztiak onak dira eta aprobetxatu egin behar dira. Eta nire ustez, martxoak 8 inguruan egiten direnak, urte guztian zehar normaltasun guztiarekin egin beharko lirateke. Jende asko saio hoi- kon- tra dago. Baina nik galdera bat egiten dut: gizoznekoekin bakarrik osatzen diren saioak direla eta inork zerbait galdetzen al du?

***Bertsolaritzan emakumezkoen artean erreferentzia zaitugu.**

Nik adibidez sekula ez dut erreferentziarik izan. Ni emakumeen bertsolaritza astiro-asti-ro aztertzen ibili naiz eta beti sinistu izan dut emakume bertsolariak egon izan direla, ze inor izan bada bertsolari, kantari eta bert-so transmisorea emakumea izan da. Eta badirudi orain hori argituz doala Karmen larrañagak egiten diharduen lanari esker. Baina ni bertsotan hasi eta bertsotan nenbi-lenean ez nuen ezer ez, inolako erreferen-tziarik. Eta ni besteentzat erreferentzi izan banaiz, asko poztzen naiz. Behintzat uste dut ate batzuk zabaldu ditudala eta lehengoan euskal entziklopedia baten Kristina Marda-ras, bertsolariaren definizioa irakurri nuene-an asko gustatu zitzaidan.

***Zer zioen?**

Ez nintzela bertsolari brilantea, baina ate batzuk zabaldu ditudala.